

# Espazio simulatuak 03 12 730



Jatorriz ez zen zerbait irudikatuko duen irudi bat sortuko dugu. Guretzat ohikoak diren lekuen irudiekin jolastuko gara existitzen ez diren leku asmatuak irudikatzeko. Hortik abiatuta, irudiek irudikatzeko duten funtzioari buruzko debate bat egingo dugu.

## Helburuak

- Dick Rekalderen obrara eta lan-prozesuetara hurbiltzea.
- Irudiek hizkuntza eta irudikapen gisa daukaten balioari buruz hausnartzea.
- Irudiekin jolastea askotariko teknikekin.
- Erabakiak banaka eta taldeka hartzea sormen-prozesu gisa lantzea.

## Aipamenak

- Joan Fontcubertaren konferentzia: <https://www.youtube.com/watch?v=LVP008ftTs>
- Irudiak editatzeko programa: <https://www.photopea.com/>
- Argazkiak sarean editatzeko: <https://pixlr.com/es/e/>

## Proposamenaren garapena

### Aurkezpena

**1.** Dick Rekalderen lanetatik habiatuko gara (besteak beste, "03 12 730" edo "Un pequeño cuento moderno") galderak botatzen hasteko:

- Zer kontatzen digute irudi horiek?
- Zer elementuk osatzen dituzte esanahi horiek? (Argia, kolorea, enkoadraketa...)

**2.** Hiruko taldetan, ikastetxeko toki bat aukeratuko dugu (klasekoa edo klasetik kanpoko) arrazoiren batengatik gustuko duguna (denbora asko pasatzen dugulako bertan, duela gutxi zerbait dibertigarria gertatu zaigulako hor...).

### Esperimentazioa / Sorkuntza / Ikerketa

**1.** Aukeratu ditugun lekuei argazkiak aterako dizkiegu, baina lekua bera ez irudikatzeko moduan; hau da, sortuko dugun irudian ez da hautemango zer toki den, beste toki baten itxura izango du. Hauekin jolas dezakegu:

- argia: intentsitate handiagoa edo txikiagoa, argi-foku bat...
- kolorea: koloretako zelofanak jarrita kamerari.
- enkoadraketa: lekua testuingurutik atera dezaketen enkoadraketen bila, eskalarekin edo konposizioarekin jolastuz.

**2.** Taldeak binaka elkartu, eta sortutako irudiak aztertuko ditugu jolasteko erabili ditugun elementuen arabera. Erabat bestelakoa den espazio bat ematen al du? Aurretik adostutako hiru irizpideren arabera ordenatuko ditugu irudiak. Adibidez: argi gehien duenetik gutxien duenera, kolore beroenak dituenetik hotzenak dituenera, enkoadraketa irekiena duenetik txikiena duenera... Zer elementu edo estrategia izan da hoberen funtzionatu duena benetako espazioaren guztiz bestelakoa den zerbait irudikatzeko?

**3.** Hasierako hiruko taldean, landutako toki baten bi edo hiru irudi hautatuko ditugu. Gure taldearenak nahiz analisia egiteko kide izan dugun taldearenak izan daitezke.

**4.** Irudi horiek non aurki litezkeen pentsatuko dugu. Dekorazio-aldizkari batean imajina ditzakegu? Bidaia-liburuxka batean? Arte-erakusketa batean? Kamiseta batean? Iragarki batean? ... Irudietarako testuinguru edo euskarri bat aukeratuko dugu.

**5.** Hautatutako irudietan esku hartuko dugu, informazio-geruza osagarri bat gehitzeko helburuarekin, aukeratu dugun testuinguru edo euskarrian kokatzea errazagoa izan dadin. Hainbat teknika erabil ditzakegu haiek eraldatzeko:

- a. Ordenagailuz, irudiak editatzeko programa baten bidez.
- b. Kalitatezko argazki inprimatu batean collage bat egiten.
- c. Irudia proiektatu, eta gainean marraztuta. Gero, argazki bat aterako diogu eraldatutako proiektioari (espazio ilun batean bada, hobe).

### Ondorioak eta lerro irekiak

**1.** Erakusketa bat diseinatuko dugu egindako azken irudiekin, eta hura aurkezteko leku bat bilatuko.

**2.** Bizitako esperientziatik zer ikasi dugun galdetuko diogu geure buruari. Ikastetxe osoari nolabait helarazi nahi dizkiogun hiru galdera pentsatu ahal ditugu.

**3.** Gogorik izanez gero, debate-jardunaldi batzuk antola ditzakegu gehien interesatzen zaizkigun edo presentzia gehien izan duten gaien inguruan. Hizlari posibleak eta debate irekietarako pizgarri izan daitezkeen galderak pentsatuko ditugu. Zer irudikatzen du irudi batek? Badirudiena al da? Zein izan daiteke haren funtzioa edo ahalmena?